

Amezketako organistak

Juan Mari Imaz Agirre (Iturria: Bixenta Izurrategi Azkarretazabal, iloba)

- ◆ Ataun S. Gregorion jaio zen, 1892/11/14an.
- ◆ 1961 inguruan, Amezketatik Donostiara joan zen, eta 1962/11/22an hil zen.
- ◆ Amezketako Udaleko idazkaria eta parrokiako organista izan zen.
- ◆ Abaltzisketan, organoa jotzen zuen, eta idazkaritza-lana ere egiten zuen.
- ◆ Orendainen, idazkaritza-lana egiten zuen; ez dakigu organoa jotzen zuen.
- ◆ Amezketako hurrei musika irakasten zien.

Emigdio Lizartza Lizarribar

- ◆ Elduainen jaio zen, 1917/08/05ean.
- ◆ Amezketan hil zen, 1977/06/10ean.
- ◆ Amezketako erretorea izan zen eta organista ere bai.
- ◆ Musika irakasten zuen Amezketan eta Alegian.
- ◆ Musikarako zaletasuna bultzatzen saiatu zen.

Sebastian Lizartza Lizarribar

- ◆ Elduainen jaio zen, 1910/01/21ean.
- ◆ Bilbon hil zen, 1996/03/02an.
- ◆ Amezketan apaiz egon zen, baina Basurtoko ospitalera joan zen.
- ◆ Organista ona omen zen.

Kaietano Etxeberria Zuriarrain

- ◆ Apaiza eta organista.
- ◆ Amezketako Arantzasti errotan jaio zen, 1908/11/27an.
- ◆ Beasainen hil zen, 1980/05/08an.
- ◆ Apaiz egin ondoren, Aiarako parrokiara bidali zuten, eta handik Beasaina etorri zen.
- ◆ Solfeoko irakaslea izan zen eta Parrokiko Koruan kantatzeko prestatzen zituen haurrak.
- ◆ Loinaz Koruan kantatzen zuen. Bakarlari ona zen (Baxua).
- ◆ Koru bereko zuzendaria ere izan zen.

Iturriak: Beasaingo Musikak.

Izaskun Gallurralde Aierbe

- Amezketan jaio zen, 1961/01/17an.
- D. Emigdiorekin hasi zen solfeoa eta pianoa ikasten. Talde bat joaten zen haren etxera.
- 14 urterekin elizako organoa jotzen hasi zen.
- Apaizak Alegiara bidali zuen gehiago ikastera eta, hor, Ordiziatik etortzen zen irakasle batekin ikasten zuten. Pianoko 7. kurtzoraino iritsi zen.
- Gero, Tolosan ikasi zuen Okariz irakaslearekin eta pianoko karrera Donostian amaitu zuen irakasle berarekin.
- Donostiako kontserbatorioan jarraitu zituen ikasketak.

- Piano-ikasketak bukatu orduko, kontserbatoriorako oposizioetara aurkeztu zen, eta plaza lortu zuen; handik 4 bat urtera, Udaletxearen esku geratu zen eta, oraindik ere, irakaskuntzan dihardu, Musika Eskolan.
- Inprobisatzea gustatzen zaio.
- Orain, Orfeoian ere kantatzen du.
- Semeak ere musika-ikasketak egiten ari dira.
- Ikasle garaian konposatu zituen obra batzuk:
 - o Suite herrikoia.
 - o Artzai neska (Madrigala).
 - o Edertasun betea (Lied).
 - o Sonata para piano.
 - o Coral.

Kontxu Altuna Aierbe

- Amezketan jaio zen, 1964/01/13an.
- Aita soinu-jolea du.
- Musika-ikasketak, pianoarekin, amaituak ditu.
- D. Emigdiorekin hasi zen solfeoa eta pianoa ikasten. Talde bat joaten zen haren etxera.
- 14 urterekin elizako organoa jotzen hasi zen.
- Apaizak Alegiara bidali zuen gehiago ikastera eta, hor, Ordiziatik etortzen zen irakasle batekin ikasten zuten. Pianoko 7. kurtzoraino iritsi zen.
- Gero, Tolosan ikasi zuen Okariz irakaslearekin, eta pianoko karrera Donostian amaitu zuen irakasle berarekin.
- Amezketako Musika Eskolako irakaslea da; pianoa irakasten du.
- Izaskunek eta biek, 12 urterekin hasita, organista-lanak egin zituzten, txandaka, 12 urtez.
- Pianoa da bere lagunik onena, gozatu egiten du hari doinuak ateratzen.
- Konposatutako obra bat badu, izenik gabea (grabazioa).

Agurtzane Murua Olano

- Amezketan jaio zen, 1980/01/21ean.
- Sistema Informatikoen Administrazioa ikasi zuen. Auditore informatikoa da.
- Amezketan, Kontxu Altunarekin, solfeoa eta pianoa ikasten aritu zen; gero, Tolosako Esnaolarekin jarraitu zuen pianoa, harmonia eta beste gaiak ikasten, Donostian azterketak egin ahal izateko.
- Amezketan 12 urterekin hasi zen elizako organoa jotzen. Abaltzisketan, Larraitzen, Altzon eta eskatzen dioten tokian jotzen du.
- “Gautxoriak” taldeko kidea, Uxuerekin, Ainararekin eta Naiararekin batera. Euskal kanta-txapelketarako sortu zen taldea, eta irabazi egin zuten.